

# Anteroren txamarrotea

Zenbat aldiz ez ote dugu kantatu *Antero(re)n Txamarrotea*, eta zenbat aldiz ez ote dugu zalantza egin zelan jarraitu: *Kaiserren bibotea*, *Sinkerren bibotia*, *Francoren bibotia*.

Jarduera honetan jakingo dugu Xabier Gezuraga lekeitiarrari esker -Eibarko Udal Euskaltegiko irakaslea bera- zein den kantaren hitzen jatorria.

## 1. Kanta entzun:



[Anteron txamarrotia abestia entzun eta talde handian, galderei erantzun:](#)



- ✓ Abestia ezagutzen duzue?
- ✓ Non entzun izan duzue?
- ✓ Inoiz abestu al duzue? Noiz? Non? Zergatik?

Hona hemen abestiaren hitzak:



*Antero(re)n txamarrotia  
"Sinker"-en bibotia  
haretzek ei dauko/a  
preso tximinoia" (bis)  
lalala lalala...*

Hemen dituzu abestian erabilitako hitz gakoak, testua ongi ulertzeko beharrezkoak:

Antero  
Sinker  
Txamarroti(e)a  
Biboti(e)a  
Tximinoia



[Zer dakizu hitz horien inguruan? Ikaskide batekin komentatu.](#)

## 2. Entzungaien inguruko informazioa jaso:

- Bi talde egin.



a) Zuen taldeak IKASBIL atariko [Lekeitioko txamarrotea](#) bideo-erreportajea ikusiko du.



b) Zuen taldeak “[Anteron eta Sinkarren istorioa](#)” audioa entzungo du, Xabier Gezuraga lekeitiar irakaslearekin grabatutako elkarrizketa.

## 3. Entzungaiei buruzko galderari erantzun:

**Egokitu zaizun bideoa/audioa entzun bitartean, jaso informazioa eta galderari erantzun.**



TXAMARROTEA

- 1.- Zer da txamarrotea?
- 2.- Nolakoa da? Zerez egin dago? Zein ezaugarri ditu?
- 3.- Non eta noiz erabiltzen da?



ANTERO ETA SINKER

- 1.- Nongoak ziren Antero eta Sinkera?
- 2.- Zer lanbide zuen Anterok? Eta Sinkerrekin? Aipatu bakoitzaren ezaugarri bat.
- 3.- Zer da tximinoia?



## 4. Entzungaien inguruko informazioa osatu:

- Albokoarekin galderen erantzunak konparatu eta osatu.
- Denen artean zuzendu erantzunak.